

## AUKERA GUTXIEN DITUZTEN PARTE-HARTZAILEAK

### IKASLANEK KONTUTAN HARTUKO DITUENAK

IKASLANek mugikortasunetan aukera gutxiago dituzten parte-hartzaileen egoerak identifikatzeko kontuan hartuko dituen oztopo eta egoerak:

| OZTOPOA                                 | IKASLANEK KONTUTAN HARTUKO DUEN EGOERA                                                                                                                                                                 | HASIERAKO ETA ERDI MAILAK | GOI-MAILA | JUSTIFIKAZIOA / DOKUMENTAZIOA                                                                                                                                                  |
|-----------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|-----------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Desgaitasuna                            | % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortua izatea.                                                                                                                                                | X                         | X         | Dagokion agintaritzak emandako desgaitasun-ziurtagiria edo ebazpen ofiziala, aitortutako desgaitasun-maila jasotzen duena.                                                     |
| Hezkuntza- eta prestakuntza-zailtasunak | Mugikortasunean parte hartzea zaildu dezaketen hezkuntza- edo prestakuntza-egoerak, ikastetxeak identifikatu eta egiaztatutakoak.                                                                      | X                         |           | Orientazio Sailaren, tutorearen edo ikastetxeko beste zerbitzu eskudun baten txostena, egoera eta, hala badagokio, mugikortasunari lotutako laguntza-beharrak jasotzen dituen. |
| Oztopo sozioekonomikoak                 | Oraingo edo aurreko ikasturtean Estatuko Administrazio Orokorren ikasketa-beka orokor baten edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea edo izan izana.              | X                         | X         | Beka eman dela egiaztatzen duen ebazpena, ziurtagiria edo bestelako dokumentu ofiziala.                                                                                        |
|                                         | Bizi Gutxieneko Diru-sarrera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) edo izaera bereko edo antzeko beste prestazio bat jasotzea, familia-unitateak edo, adingabeen kasuan, zaintza duen gurasoak jaso. | X                         | X         | Prestazioa jasotzen dela egiaztatzen duen erakunde eskudunaren ebazpena edo ziurtagiria.                                                                                       |
|                                         | Mendeko pertsonak ardurapean izatea.                                                                                                                                                                   | X                         | X         | Mendekotasun-egoera aitortzen duen ziurtagiria edo ebazpen ofiziala eta parte-hartzaileak mendeko pertsona bere ardurapean duela egiaztatzen duen dokumentazioa.               |
|                                         | Umezurtz-izaera administratiboa aitortua izatea.                                                                                                                                                       | X                         | X         | Egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiria edo dokumentazio ofiziala.                                                                                                            |
| Osasun-arazoak                          | Mugikortasunean baldintza berdinetan parte hartzeko oztopoa izan daitekeen edo egonaldian laguntza-behar espezifikoak sor ditzakeen osasun fisiko edo mentaleko egoera izatea.                         | X                         | X         | Egoera eta, beharrezkoa denean, mugikortasunari lotutako laguntza-beharrak egiaztatzen duen profesional edo zerbitzu eskudunaren txostena edo ziurtagiria.                     |
| Desberdintasun kulturalak               | Errefuxiatu-izaera edo babes subsidiariorako eskubidea aitortua izatea, edo nazioarteko babes-eskaera aurkeztu izana Espainian edo beste herrialde batean.                                             | X                         | X         | Ebazpena, eskaeraren frogagiria edo egoera egiaztatzen duen bestelako dokumentazio ofiziala.                                                                                   |
| Diskriminazioa                          | Mugikortasunean parte hartzeko oztopoa izan daitekeen eskola-jazarpen, diskriminazio edo bazterketa egoera egiaztatua jasan izana.                                                                     | X                         |           | Ikastetxearen, Orientazio Sailaren edo beste erakunde eskudun baten ziurtagiria edo txostena, egoera egiaztatzen duena.                                                        |

**Oharra:** Kasu guztiak dagokion justifikazio edo dokumentazioaren bidez egiaztatu beharko dira.